

ANTZERKIA OIASSON
TEATRO EN OIASSO



OIASSOKO EMAKUMEAK monologoak
monólogos **MUJERES DE OIASSO**

Oiasson duela 2000 urte · Hace 2000 años en Oiasso

Antzezleak / Actrices: Olatz Beobide, Aia Kruse, Naiara Arnedo, Patxi Perez
Zuzendaritza / Dirección: Ana Pérez, Aizpea Goenaga

XANTALEN

ASTERDUMIRAREN NEGARRA

Aizpea Goenaga

Asterdumira, 45/50 urte inguruko emakumea da. Baztanga arrastoak ditu azalean. Bertako janzeraz jantzita dago, baina erromatarren gustura egokituta. Bere arropak lan itxura dute, eta dotoreak izan arren, nahiko zikinduta eta hondatuta daude.

Asterdumirak hainbat belar, kaiku eta bestelako tresnak dakartza berekin, zakuzko oihal batekin egindako petate batean daramatza.

Atzera! Atzera! Kontuz! Ez hurbildu. Sukarra daukat... Atzera, atzera... atzera ni! Torturatzen eta zigortzen duen gaixotasun hau daukat.

Nola eta zergatik hartu dudan jakin gabe. Ai! Zer egin ote diegu jainkoei gu horrela zigortzeko.

Baina ez alde egin, e! Ez nazazue bakarrik utzi!. Hain gaizki ere ez nago-eta, gainera ipuin bat, poema bat edo fabula bat kontatuko dizuet, oso politak dakizkit. (*Poltsa utzi*).

Hara! Ez duzue alde egin, a ze jende jatorra!

Egia da Oiassoko biztanleok kasta onekoak garela!

Ez dakizue zein txarra den bakardadea, batez ere gaixorik zaudenean. Mundu honetatik eramatea erregutu nien jainkoei, baina orduan nire seme-alabez akordatu nintzen, oraindik gazteegiak baitira mundu baldar honetan bakarrik defendatzeko.

Ai, baina nolako minak! A ze oinazeak! Ikaragarria da zure gorputza horrela

ikustea, gaiztakeria hori zure zainetan barrena dabilela, izpiritu gaiztoek harrapatuta bezala.

Eta, aurrera egin ezin dutenean, gorrixken artetik haragia hautsiz lehertzen dira, hazten doazen babak bihurtu, zornez puztu eta, azkenean, zilborrak bezala lehertzen dira.

Eta gorputz osoak min ematen du. Batez ere egunsentian, sukarra erasoka hasten denean, buruak eta pentsamenduek mundu beldurgarrietara eramaten zaituzte. Izaki konkortuak dituzten munduetara, adar amaiezinak dituzten piztietara.

Zakua hartuko du eta hitz egiten ari den bitartean zakuan bilatuko du.

Baina utz ditzagun amets gaiztoak, gauza onak kontatu nahi dizkizuet-eta. Izan ere, gorputza sendatzea lortu baitut. Belarren bila abiatu nintzen mendira. "Asterdumiraaaa, Asterdumiraaaaaa..." Bai, horixe, landareek ni ondo baino hobeto ezagutzen naute... Kar, kar, kar. Ez, ez, nire izenez, ez, Ez horixe!. (*Zakua utzirik*) Landareak pertsonak bezalakoak dira, denok ditugu bi begi, sudurra eta ahoa, baina aita eta ama bera izanda ere, denak gara ezberdinak. Hori bai dela misterioa!

Eta landareei berdin gertatzen zaie, bizi diren lekuaren arabera, eskuzabalagoak dira edota alaiagoak, argi gehiago sortzen dute eta propietate gehiago dituzte. Baina, zergatik begiratzen diogu pertsona bati, eta ez beste bati? Zergatik maitemintzen gara pertsona batekin, eta ez beste batekin? (*Kolpea lurrean*). Ba naturan ere berdina gertatzen da.

Egia da, bai, batzuetan okerreko pertsonaz maitemintzen garela. Uiii! Irribarre ugari ikusten dut. Zer? Zuei ere pasa zaizue, ezta?

Bada olerki eder bat, Sulpizia erromatar poetak, bere maiteari idatzitakoa:

*Cerinto, zure neskarekiko oraingo kezka, ba ote,
sukarrak kolpatzen duelako nire gorputz nekatua?
Ai! Nik ez nuke gaixotasun penagarritik libratu nahi,
Ez banu uste zuk ere hala nahi duzunik.
Bestela zertarako libratu gaixotasunetik
nire gaitzak bihotz axolagabez jasango badituzu?*

Ai! Ederra oso olerkia! Ederra maitasuna... sufritu arte.

Ni gaixotu egin naiz... bai, bai, maitasunagatik, baina ez da orain daukadan minaren antzik. Pasa dudan minak ez du parekorik! Min honek ez dit ibiltzen uzten ere...

Nork esango luke, beti izan dudan sasoiarekin! Egunean zenbat aldiz joan ote naiz hemendik Xantalenera! Egun osoa, atzera-aurrera, joan eta etorri, hau zela, bestea zela. Gelditu gabe.

Ibiltzea ona da, bai, ibili egin behar da, herri osoa ezagutu, haien bizitzetaz oroitu, eta hiltzen direnean, zeren, hemen ez da gutako inor geratuko...

Nor deituko dute negar egitera joateko? Zapataria? Arrain saltzaileari? Ezzzz. Ni deituko naute.

Zenbat familia kontsolatu dudan! Zenbat hildako agurtu dudan!

Beti hildakoen familia laguntzen. Prozesioan. *Collegiuma* musika triste hori jotzen, eta ni familiaren atzetik, negar zotinka. Denek esaten didate oso ondo egiten dudala negar. Eta bai, hori horrela da. Jende guztiak ez daki ondo negar egiten. Ez horixe! Batzuei negar egiterakoan masailak puzten zaizkie, beste batzuk mukiz betetzen dira, eta beste batzuei aurpegia zimurtu egiten zaie, eta oso zatar jartzen dira.

Ni ez. Nik barru barrutik egiten dut negar, arima osoarekin, eta malkoak zorrotadaka ateratzen zaizkit. Eta aiene luze eta sakona daukat. Entzun nahi duzue?

(*AI ENE luzea egiten du*). Arima kraskatzen du, ezta? Eta ederki asko adierazten du hildakoa zenbat maite genuen. Hileta batean ez bada ondo negar egiten, joan denaren hutsunea sumatzen ez delako da. Eta hori baino gauza tristeagorik! Hileta batean erraietatik egin behar da negar eta gogotik.

Horregatik da hain garrantzitsua herri osoa ezagutzea, haien izenak gogoratzea eta, batez ere, bakoitzaren arazoak ezagutzea.

Publikoaren artera joan eta bertako pertsona bat aukeratuko du galdetzeko eta ondoren bestea...

—Kaixo, Agripina, jaio al da zure alabaren semea? Lasai, primeran etorriko da.

—Remola, aurpegi txarra duzu. Itsasotik itzuli al da zure senarra? Hurrengoan abisatu, e, eta elkarrekin joango gara portura. Bere senarrak dauka txitxarro freskoena... Tori, egin edabe bat belar hauekin, ur berotan egosi, bertan pausatzen utzi, eta baraurik edan. Ikusiko duzu nola *muxugorrituko* zaren.

—Torela, aurkitu al duzu galdutako fibula? Ai zer pena! Egin eskaintza bat jainkoei. Baina fundamentuarekin, neska!

Niri asko ordaintzen badidate, bada negar asko egiten dut, eta gutxi ordaintzen

badidate, bada gutxi! Hildakoa maite duenak ez du huts egiten ordaintzeko orduan. Eta haiek ez badute asko maite, bada nik ere ez dut negar handirik egingo, ez horixe!. Berehala igartzen baita hori. Eta ni egoerara moldatzen naiz. (*Diruaren keinua behatzekin eginez*).

Adibidez, Tizianoren ama, Aduanako buruaren ama, badakizue nortaz ari naizen, ezta? Emakume bikaina zen. Beti dotore, beti laguntzeko prest. Ai ene bere ehorzketan zenbat negar egin nuen. Herri osoa hurbildu zen hiletara. Zer izan zen hura! Aaaai...

Niretzat nahiko nukeen tunika dotore batekin jantzi zuten, familia handia zeukan. Familiaren atzean *collegiuma* zihonan, bihotza estutzen zuen musika jotzen. Eta ni atzean, negar batean! Eta aiene luzeak botatzen... Pira izugarria egin zioten. Eta ardoak! Eskaintza egiteko erabili ziren ardoak... A ze ardoak! *Daimon*, jenio ona ere, dantzan ibili zen! Eta bere errautsak, Pompelonatik bereziki ekarritako ontzi eder batean gorde zituzten. Urna ikusgarria zen. Itsasoa bezalako beira urdina, distiratsua. Bertan ere, bere lurrinak eta esentziak gorde zituzten, hurrengo bizitzan lagun izan zitzaizkien.

Gogoan dut beste hil-ontzi bat, legionario gazte batena. Bai, bere familia portu gainean bizi dena! Ai! Zein harro zeuden mutil horren gurasoak, hain zen jatorra, eta ze gutxi bizi izan zen gaztea! Gizajo horren hiletetara, inor gutxi etorri zen, eta euria gogotik ari zuen gainera. Lastima.

Aizue! Ni berrikerian oso gustura nago, baina belar hauek prestatzera joan behar dut, hazkura lasaitzeko eta indar berritzeko. Hori bai, solasaldia oso ondo etorri zait, askoz hobeto nago. Baina oraindik ez daukat behar den sasoi ehorzketa batera joan eta negar malkoka aritzeko. Eta bihar, hain zuzen ere, eguzkiak lotara joan baino lehen, Odisseneko etxekoandrea lurperatuko dute. *Matriarka* handia bera.

Hara! Mesede bat eskatuko dizuet: negar egitera etortzeko.

Ez, barre, ez. Han ez da barre egiten. Bai, tira! Laguntza txiki bat besterik ez dizuet eskatzen. Negar egitearen entseguak egingo ditugu. Hiletara joan behar da arimarekin negar egiten ikasita, eta aiene luze eta sakonak egiten dakigula erakutsiz.

Ikusleei negarti lana nola egin erakusten hasiko da. Negarrez eta kexuka, eta, aldi berean, jendearen barre edo komentarioei erantzunez eta beraiekin jolasten.

Baina, jainkoarren, ez horrela egin negar. Egia da, ez dakigula zenbat ordainduko

diguten, baina ahalegin gehiago egiten ez badugu, jai daukagu!... Hori bai, jendeari negarra adina gustatzen zaio malkoa. Tira, badakizue zer egiten dudan nik? (*Alboetara begiratuko du, sekretu handiz*). Hau ez esan inori, sekretu profesionala da-eta. Begira, nik alboan, zorroan, zapi batean bilduta tipula zatiak eramaten ditut beti... Eta malkorik ateratzen ez denean, zapia disimuluan begietara hurbildu eta...

—Zu oso ondo ari zara, baina ez kendu niri lanpostua gero!

—Ai, neska, neska, kontuz ibili eta arnasa hartu, itoko zara bestela. Eta ea hiletara etorri, eta hildakoak bi izango diren...

"Ai, ene! Ai ene bada! Ai ene a ze min galanta! Odisseneko etxeoandreaaaaa... Oiassoko matriarka! Ai ene, zelako mina! Zelako min gogorraaaaa!"

Ikusleei berak esandakoak errepikatzeke eskatuko die. Emaizta bizia ahalbideratuko du eta oso pozik geratuko da. Oso gora.

Oso ondo egin duzue, hiletari bikainak zarete! Oiassoko onenak!

Ba esandakoa, bihar ilunabarrean elkartuko gara, Xantaleko bide hasieran, Nik itxiko dut tratua senideekin, eta esango dizuet asko edo gutxi kobratuko dugun, eta zenbat ne...

Ikusten duzue, nahiz eta Oiassoko bizitza hain aktiboa izan eta guk horretarako ahalegin guztiak egin... nork egingo du negar guregatik, hiletariengatik, gu hiltzen garenean? (*Bere burua seinalatuko du eta ikusleei erantzuna esateko esanez*). Zuk! Zuk!!

Hara hor bada!

Tira, entsegu asko egin eta bihar arte. Nik ziztu bizian alde egin behar dut belarrak irakiten utzi ditut-eta! Bihar arteeee...

XANTALEN

EL LLANTO DE ASTERDUMARI

Aizpea Goenaga

Hay un bulto de telas toscas en el suelo. Empieza a moverse. Asoma una cabeza hasta los ojos. Lentamente se vuelven a esconder, y al rato vuelve a asomar.

Mira pausadamente a todos los que se encuentran allí observándola.

Poco a poco va asomando y según va hablando va ganando confianza e irá saliendo de la montaña de telas y harapos que están frente a la ermita de Santa Elena (Xantalen).

Asterdumari, es una mujer joven de unos 25/30 años. Tiene marcas de viruela en su piel. Vestida con indumentaria local pero adaptada al gusto romano. Sus ropajes tienen un aspecto de trabajo, y aún siendo elegantes están bastante manchados y gastados.

Asterdumari trae consigo diferentes hierbas, cuencos y demás útiles que los llevará en un petate, realizado con una tela de saco.

No os acerquéis. ¡Atrás! ¡Atrás! Tengo... qué difícil decirlo... me encuentro mal. Tengo esta enfermedad que tortura y castiga. Sin saber cómo, ni por qué. Qué mal habremos hecho para que los dioses nos castiguen así.

Pero no... no os vayáis ¡por favor! No me dejéis sola. Os cuento un cuento, o un chisme o si queréis os recito un poema...

Uy, no os habéis marchado, qué gente tan estupenda, es verdad que los habitantes de Oiasso somos especiales, ¿verdad? Ay, no sabéis qué mala es la soledad, sobre todo cuando estás enfermo. Lo peor... no saber cuándo va a terminar esto, ni

como. Cuando después de varias infusiones conseguía calmar esta fiebre y este malestar que recorría todo mi cuerpo, llegué a rogar a los dioses que me llevarán de este mundo ¡porque cuánto mejor sería morir! pero entonces pensaba en mis pobres hijos, que todavía son demasiado niños para defenderse solos en este mundo inhóspito. Pero... ¡qué dolores! Es espantoso ver tu cuerpo como si estuviera atrapado por los espíritus malignos que recorren tus venas llevando esa maldad, y cuando ya no pueden más, estallan rompiendo la carne a través de unas rojeces que se convierten en ampollas que van creciendo, que se van hinchando de pus y revientan como ombligos. Y todo tu cuerpo duele, sobre todo al amanecer cuando las fiebres empezaban a atacarme, mi cabeza era poseída por espíritus que además de causarme dolor, me llevaban a mundos terribles que por todos los dioses no quereis conocer! Mundos con seres encorvados, animales con cuernos interminables, de dientes afilados y colmillos amenazantes que me asaltaban cuando menos lo esperaba, en un bosque cerrado donde las ramas cogían vida y me arañaban, mientras caía por una cuesta interminable. Intentaba frenar mi caída y me agarraba a cualquier rama pero todo cogía vida mostrando las caras más espantosas que nadie pueda imaginar mientras lanzaban virulentamente pequeñas piedras contra todo mi cuerpo, como si escupieran granizo.

(...)



No, no, pero dejemos los malos sueños, que os quiero contar cosas bellas. Porque he conseguido a pesar de todo sanar mi cuerpo. Si, salía al monte a por hierbas, porque yo solo sé cuáles me van a curar. No hay que saber el nombre de la hierba te va a sanar. No. Hay que saber de la misma planta, cuál vas a recolectar. Hay que escuchar a las plantas sí, sí... hay que escucharlas... no, no estoy loca. Las plantas son como las personas, todos tenemos dos ojos, nariz y boca, y aunque hayamos nacido del mismo padre y de la misma madre nadie nace igual. Eso sí que es un misterio. Y a las plantas les pasa igual, depende de donde vivan, son más generosas, más alegres, emanan más luz... y tienen más propiedades. Yo voy al bosque, miro las plantas y ellas mismas me llaman... no por mi nombre jajaja, por supuesto, pero... por qué nos fijamos en una persona y no en otra, por qué nos enamoramos de una persona y de otra no. Pues sucede lo mismo en la naturaleza. Jaja... bueno, es verdad, muchas veces nos enamoramos de la persona equivocada. Veo muchas sonrisas... a cuántos nos ha pasado, ¿eh?

Hay un hermoso poema escrito por Sulpicia, una poetisa romana que le canta a su amado, ¡qué hermoso poema!

(Elegir uno u otro o incluso un fragmento, un par de versos).

...

¿Tienes, Cerinto, una devota preocupación por tu chica,
porque ahora la fiebre maltrata mi cuerpo cansado?
¡Ay!, yo no desearía librarme de la penosa enfermedad,
si no creyera que tú también lo quieres.
Pero, ¿de qué me valdría librarme de la enfermedad, si tú
puedes sobrellevar mis males con corazón indiferente?

...

Para ti no sea yo, luz mía, un ansia tan ardiente
como parece que fui, hace algunos días;
si alguna falta cometí, tonta en mi exceso de juventud,
de la que confieso que me arrepiento más,
es haberte dejado solo ayer por la noche
deseando disimular mi ardiente pasión.

No hay que dejar solo a un hombre, nunca. Yo lo hice para no enfadarlo, para que no se sintiera acorralado y entendió mal, y se marchó para siempre. El gozo en la vida es corto. Sí, la vida es corta. Bueno a veces. Vivirla con esta enfermedad se

hace larga. Eterna. ¿Cuándo acabará todo esto?

Pero el amor... Qué hermoso es el amor hasta que te hace sufrir. Yo he enfermado por amor, pero no duele igual que esto que llevo ahora. Este es un dolor que no me deja caminar... Esta mañana he ido a por plantas, y he terminado aquí dormida entre estos trapos, sin poder llegar a casa.

Por fortuna esta enfermedad me ha hecho perder el olfato. ¡Menos mal! ¡Qué asco! A quién se le ocurre tumbarse aquí. Parezco una pordiosera. Pero juro que era el agotamiento que no me dejaba dar un paso más. ¡Quién lo diría! Con la fuerza que he tenido siempre, ¡cuántas veces habré venido desde Oiasso hacia aquí! ¡Cuántas familias habré consolado! ¡Cuántas despedidas! Siempre acompañando a las familias de los difuntos. Con los *Collegium* tocando esa música tan triste, y yo detrás de la familia llorando...

Todo el mundo me dice que qué bien lloro. A ver... eso es así. No todo el mundo sabe llorar bien. Hay gente que cuando llora, se le hinchan las mejillas, y otros que moquean, en cambio a otras mujeres se les arruga la cara, y se ponen horrorosas.

A mí no. Yo lloro con el alma y me salen las lágrimas como chorros, y tengo un lamento largo y profundo que estremece. Que hace crujir el alma, y muestra cuánto se le quiso en vida al difunto. Si no se llora bien en un funeral, es porque no se le echa de menos al que ya no está en este mundo, y no hay nada más triste que eso. En un funeral hay que llorar desde las entrañas...

Empieza a hacer de plañidera. Llorando y lamentándose.

¿Lo veis? No todo el mundo llora igual. Y hay que llorar con hermosura, bonito, si quieres que te den unas monedas por ir a un funeral.

Bueno y hay una parte previa, tan importante como el momento del llanto, y es conocer a todo el pueblo, tener relación con los vecinos, acordarte de su nombre y tanto o más importante, acordarte de los problemas de cada uno.

Se dirige a una persona del público.

Hola, Agripina, ¿Ha nacido ya el hijo de tu hijo? Espero que sea un muchacho sano. Rébola, ¿tienes mala cara, ha vuelto tu marido del mar? Me alegre, Rébola, ay, a ver si te acuerdas la próxima vez que vuelva y así me acerco al puerto, porque tu marido es el que pesca los mejores txitxarros... Toma, haz un bebedizo con estas hierbas, las dejas en agua caliente y te las bebes por la mañana, ya verás como te vuelve el color a las mejillas. Torela, has encontrado la fíbula que perdiste? Ay qué lástima, haz una ofrenda y pídeselo a los dioses...

Hay que pasear mucho y conocer a todo el pueblo, acordarte de sus vidas y cuando se mueran... porque, aquí no vamos a quedar ninguno... entonces ¿a quién le llaman para que lloro? ¿Al zapatero? ¿A la pescatera? Nooooo... me llamarán a mí. Y hay que saber cómo hacerlo. La gente se arremolina para ver cómo lloro, con cuánto lamento... si, si, la gente quiera acercarse para ver cómo lloro, y qué pena más grande tengo.

Y si me pagan mucho lloro mucho y si me pagan poco menos... eso es así. El que quiere al difunto no escatima a la hora de pagar, ¿no es así? Si ellos no le quieren mucho... yo tampoco lloraré mucho. Eso se nota enseguida. Y yo me amoldo a lo que haya. (*Señal de dinerito*).

Abre la puerta principal de la Ermita.

Mirad, allí está Livia, sí la madre de Ticiano, el jefe de la aduana. Esa mujer era estupenda, siempre elegante, y siempre dispuesta a ayudar, ay... lo que lloré en su entierro. Y la de gente que vino... todo el pueblo. ¡Qué fue aquello!

La vistieron con una túnica que para mi la quisiera, es que vino mucha familia. Detrás de la familia iba el *collegium* con una música que ahogaba el pecho, uy lo que lloré. Hicieron una pila enorme. y los vinos con los que se le hicieron la ofrenda a los dioses mmmm... qué vino. Daimon el genio bueno ¡estaría contento! Y guardaron sus cenizas en una urna que la habían traído especialmente de Pompelona, un vidrio verde como el mar, brillante, limpio. Y allí guardaron sus perfumes y sus esencias. (*Señalando el lugar de enterramiento de la urna*). Ahí enterraron sus cenizas.

(*Señalando otra urna*). Ay, esta urna es la de un joven legionario, que su familia vive encima del puerto. ¡Qué orgullosos estaban los padres de este muchacho y... se marchó, habiendo gozado tan poco la vida!. Para honrar a este pobre hombre pocos vinimos... y además llovía. Una lástima.

En fin, aquí estoy charla que te charla, pero tengo que ir a preparar estas hierbas. Voy a hacer unos ungüentos para calmar los picores y unos bebedizos gracias a los cuales he conseguido volver a la vida. Además esta charla me ha venido muy bien, me encuentro mucho mejor. Pero todavía no tengo fuerzas para asistir a ningún enterramiento. Y precisamente hoy antes de que el sol duerma van a enterrar a la matriarca de Odissene. Os tengo que pedir un favor: que vengáis a llorar. No risas no... llanto. Aquí no se viene a reír.

Empieza a organizar al público.

Les coloca en fila de dos o tres personas.

Les hará caminar en procesión, dibujando círculos en la plaza de Santa Elena.

Venga... vamos a probar... poneos así en fila.

En medio de la plaza saca unos cuencos y una jarra de vino, para hacer la ofrenda a los dioses derramando el vino en la tierra.

Vamos a hacer la ofrenda... pero por dios, a mí no me lloréis así. Con más fuerza... sabéis que hago si no me brotan las lágrimas, suelo llevar un cachito de cebolla en la mano. Pero esto no lo digáis. Pero es que a la gente le gusta la lágrima tanto como el lamento.

Ahora toca lamentarse... con todo el aire peleando contra el viento... así... eso es... un poco más. Tú lo estás haciendo muy bien... pero no me quites el puesto, eh?

Lo habéis hecho muy bien, sois grandes plañideras y plañideros, pero ya veis, aunque la vida de Oiasso fuese tan activa y gracias a nuestro trabajo... ¿Quién hablará nadie hablará de nosotras cuando hayamos muerto? (*Hace gestos señalándose a sí misma*).

El público responderá... ¡Tu, tu!

¡Así es!

Venga, id a ensayar y os espero mañana. Yo tengo que ir a todo correr porque he dejado hirviendo unas plantas... Hasta mañanaaaa...

Saluda.



JULIA

Aizpea Goenaga

Pergamino batzuk bilduta dituela korrika eta presaka sartuko da. Pozik dator lagunekin elkartzera:

Kaixo, arratsalde on, eta eskerrik asko etortzeagatik. Eskerrik asko. Asko eskertzen dizuet, eta eskerrak ematen dizkiet jainkoei zuek bildu ahal izateko eman didaten laguntzagatik. Beno, batez ere Minervari. Badakit zuen buruei galdetuko diozuela zer arraio egiten duzuen hemen, ardoa edaten eta lagunekin festa hauek ospatzen ibili beharrean... edota gladiadoreak ikusten... edo musikaz gozatzen, baina deitu bazaituztet garrantzi handiko kontu batengatik izan da. Guk guztiok partekatu dugu *litterator* bera, maisu bera. Berari esker ikasi dugu irakurtzen, eta autore handiak maitatzen, tira, baita gure amei esker ere. Gurea *emagin* handi bat da, ilustratua eta ikasia, bere familiarengandik idazketa, filosofia, zientzia eta astronomia arteak ikasi zituen. Baina, gainera, gure amak irakatsi zigun... tira, hobe esan irakatsi zidan musika. Ezin izango dut inoiz kantatu amak egiten duen bezala, baina Jupiterrengatik, a ze zoriona gure bera bezalako ama izateagatik! Beno, zoriona eta zortea nirea. Bai. Nik.

Berari esker ikasi nuen irakurtzen, kalkuluan trebatu nintzen, eta bere egoskortasunari esker nire ikasketekin jarraitu nuen, zuek bezalaxe, gure *litteratorrarekin*.

Baina amak borroka egin behar izan du nik ikasi ahal izateko. Badakizue ez dela erraza. Guraso askorentzat ikasketak denbora galtzea dira. Eta, gainera, emakumea bazara... emakumeak hutsaren hurrengo izanik gainetik ikastea, pua!. Musika

pixka bat jotzen ikasteak gonbidatuak etxera etortzean gauak animatzeko besterik ez du balio, (*txirula entzungo da*), bisitan datozen senideen aurrean maitasun-poema bat erreztatzeak inbidiak jota alde egiteko besterik ez du balio!

Bizitza bataila bat da. Borroka odoltsua. Krudela. Non gogorren jotzen duenak irabazten duen, eta bere harrapakinarekin nahi duena egin dezakeen. Eta emakumeak presoak gara. Bai, emakume jaiotzeagatik gure bizitzako lehen borroka galdu dugu!. Eta gure aitaren presoak gara lehenik, eta gure senarrarenak ondoren. Tira... zera... kar, kar, kar...

Badakit gizonezkoak ere etorri zaretela hona, nik deituta, baina hara, gizonak, emakumeak, ninfak, minotauroak...

Baina, ea, zuei aukeratzeko ematen badizute, zer nahiago duzue ezkerreko begia edo eskuineko begia? Lasai esan... Eskubikoa? Ezkerrekoa? Ez zaizue gehiegi axola, ezta? Bat falta bazaizue, bestearekin konpon zaitezket, ezta? Baina aditu, ezkerreko begia galduta baduzue, eta jainkoei begi bat eskeini behar bazeniete hala eskatu diezuelako... zein emango zenieke? Ezkerrekoa, noski. Galdua duzuen, ezta? Eta eskubiko begiarekin primeran biziko zinatekete.

Eta zein esku eskainiko zenieke jainkoei? Lagundu bai, baina erabiltzen ez den ezkerreko eskua edo denetarako erabiltzen dugun eskuineko eskua? Ezkerrekoa eskainiko zenukete, ezta? Jakina!

Eta ezker hankako herrenak bazina? Jainkoei eskaintzekotan... herrera duzun hanka hori emango zenieke, ezta?

Ba ni naiz aitaren ezker alde horixe!. Zalantza izpirik Gabe jainkoei eskainiko lieken begi hori, esku hori eta hanka horixe naiz. Nire aitak gorputzeko zati batzuk gainetik kendu behar balitu, kenduko lituzkeenak nirekin zerikusia duten zatiak lirateke.

Baina eskuineko begia, eskuineko eskua eta eskuineko zangoa ere bai, nahiz eta elbarri egon, baina ni ordezkutzen banaute, jainkoei eskainiko lizkieke!.

Ama berarengandik bi izaki jaio ginen, anaia Claudio, eta biok, egun berean! Batera! Hilabeteak elkarrekin eman genituen amaren sabelean. Hori da partekatu dugun gauza bakarra, eta Jupiterrengatik, ezin nuelako handik ihes egin izan zen. Jaio zenean, gure amonak harro erakutsi zizkion gure aitari bi seme-alabak. Bi haur kolpetik gehiegi zen aitarentzat, eta pentsa dezaket zer pentsatu zuen: "*Pruf, neskato bat, zertarako nahi dut nik neskato bat?*". Eta amonak dioenez, esan omen zion: "*Nola egingo diozu uko haurrak parez pare egiteko gizonkeriari? Oiassoren inbidia*

izango zara“. Eta nire aita haaaain da gizona... muturra okertu eta zer esan jakin gabe bota zuen *“ongi da! Bizi dadila neska ere!*“. Harrokeria horrexegatik bakarrik nago gaur hemen.

Ze latza, ezta? Amak bederatzi hilabete garamatza sabelean, minez erditu gaitu, eta hala ere, gure aitak erabakiko du baietz ala ezetz. Errekara botako nauten, ala esklabu izatera bidali...

Nire anaia Claudio... jakina ezin zioten izen xumeagorik jarri...Tira, Claudio nire aitaren begi galdua da, nire aitaren esku tentela eta bere hanka herrena, baina sekula uko egingo ez liokeena!

Inutila, alperra eta tentel hutsa da, baina tentel tentel tentela! Gainera, txikia eta biribil-biribila. Baina, gauza guztien gainera *“gizona”* da, eta, beraz, nire aitak ez luke inoiz baztertuko. Beti defendatuko du. Beti babestuko du...

Biok hasi ginen amarekin etxean ikasten. Eta berak ez du ez *abezedarii* ikasi, ez



syllabarii, ezta *nominarii* ere. Kalkuluak eta erreztatzea ez aipatzearren!!! Baina jainkosa guztiengatik... hori da testu eder bat txikitzeko modua!. (*Irakurtzen ez dakien anaia imitatuz eta totalka hitz eginez...*).

Zu, erromatar herriaren sortzaile,
Gizakien eta jainkoen plazera, Venus arima:
Zeruko gangaren azpian...

Izan ere, oso agostoia, txit haundia bera, baina izena kenduta beste guztia txiki-
txikia du! Hitz totela da, ezin du R-a esan, eta gainera ez daki zer irakurtzen duen
ere... a ze inutila! Maisua haserretu egiten zen, eta orduan poema nik irakurtzeko
eskatzen zidan. A zer nolako amorrua ematen zion horrek! Horregatik uste dut are
gehiago gorrotatzen nauela.

Palestrara joateko garaia iritsi zitzaigunean, aitak berriro ezkondu nahi izan ninduen
eta ikasketak bertan behera uztea. A ze kaikua! Tira, halako lapiko, halako tapa!
(*Ikusleei zuzenean galdetuz*). Badakizue zertaz ari naizen, ezta? Horrelako ezpal bat
baino gehiago ezagutuko duzue, ezta? Kaiku alanak! Baina, tira, bai gure amak,
bai gure maisuak, bai musika-irakasleak, eta baita gure amonak ere erregutu zioten
nire ikasketekin jarraitu behar nuela eta familiarentzat ona izan zitekeela. Zenbat
kosta zitzaitzen aita konbentzitzea. Baina bai, ikasten jarraitu ahal izan nuen!!!

Niri gehien gustatzen zaidana literatura da.

...
Zeruko gangaren azpian...
Izarrek biraka irrist egiten duten lekutik...

(*Aitaren ahots zakarra imitatuz*). *“Baina zergatik ez duzu normal hitz egiten? Ez
dakit zer arraio esaten ari zaren!*“. Badakizue nor den, ezta? Hara, poesia idazten
dudala jakingo balu, eta a zer aurpegi jarriko lukeen Dies Oiassoniseko festetan
erreztatuko dudala jakingo balu!!!

Nire aita bezalako pertsonak ez dute inoiz ulertuko hitzen edertasuna edo
musikarena... edo pentsamentuarena, hemen zergatik eta zertarako gauden
pentsatzea!

Gizon bat banintz, patuak ni Augusto izatea nahi izan balu, eta nire anaia mozolo,
tontolo eta astapotroa berriz Julia... Nik idatzi eta ikasi ahal izango nukeen, eta
auskalo, agian sendagile ere izan nintekeen. Baina zergatik okertu ziren jainkoak?

Zergatik?

Eta, gainera, *Pater Familiasek* erabaki zuen ni ezkontzea, ni baino askoz zaharragoa den gizon batekin, eta nire familiako gizonak bezain memelo, kaikua eta astakirtena gainera!... Ai ze nahigabea nirea!. Zenbat erregu ez ote nizkion egin Isisi, nire bidetik aldentzeko! Gau batean afaltzen ari ziren, eta nik lute jotzen zuen bitartean, aitak Valeriori —nire senarra izango zen agureari— esan zion: “*Ea zuzentzen duzun, ze liburu asko eta poema asko eta azkenean txori gehiegi buruan*”, eta besteak eta ez du bada botatzen... “*Ez kezkatu, horrelako emakumeekin onena egurra. Eta liburuak surtara*” Kar, kar, kar, barre egiten zuten biek, ni ez banengo bezala! A ze nazka eman zidaten!!! Imajinatzen? A ze bizitza zetorkidan!

Orduan... liburu guztiak hartu eta Liviaren etxera eraman nituen aitak jakin gabe. Nire lagunik onena da. Eta dena kontatu nion, nire beldurra eta zein etsita nengoen eta... berak begiratzen dit, begira geratzen zait eta esaten dit: “*Tori, hartu hau! Eta ikasi, zuk ikasi*”. Eta liburutxo bat eman zidan. Liburutxo honek... Ez dakit nola azaldu, zera... liburutxo hau medizinari buruz zen? Edoooo horrelako zerbait? Kontua da liburutxo honek BIZITZA SALBATU didala!!!

Bai, Valerio agure zaharrarekin ezkondu nintzen. (*Xuxurlaka*). A, eta ezin izan zituen nire liburuak erre. Eta ni bere emazte leial eta zintzoa bihurtu nintzen.

(*Bere senar astakirtena imitatuz*). “Ikusi al duzu nola zuzendu dudan zure alaba?” “Kar, kar, kar, Augusto, begira, ikas ezazu Valerioresandik! Ai suhia, lehoi bat ere makurtuko zenuke zuk, bai horixe! Kar, kar, kar!”.

Lehoi bat? Lehoi bat??? Lehoi batek jata mokadu batean irentsiuko luke kaikualaen hau-eta!

(*Emazte zintzoaren plantak eginez*). Ene, zer diot baina... gizajo nirea? Ezkondu egin ginen eta (*negarrez ari balitz bezala*) bat-batean gau batean lo geratu zen eta... ez zen esnatu. Eta hainbestetan esaten zuen zer nolako kemena zeukan eta ze gizon sasoitsua zen eta zenbatetan egiten zuen nirekin larrutan, eta... harroputz kirtenen harrokeriak! Eta hiletetan... ene... zenbat negar egin nuen!! Pentsa, aita ere nitaz kezkatu zen, bai, bai, lehen aldiz bere bizitza guztian. Bada, harroputzekia guzti horiengatik hiletetan zabaldu zen, bere heriotza, hain zaharra izanik... haaaaainbeste larrutan eta haaaaainbeste sexu edukitzeagatik izan zela. Kar, kar...

Amaitu zen dolua, eta *Pater Familiasek* berriz ere, irakurtzen ikusten ninduenez, berriro ezkondu behar nuela eta berriro ezkondu behar nuela tematu egin zen. Ze astuna! Nire amonari eskatu nion laguntzeko, eta hurrengo senarra ikasia eta

jakintsua izan zedila. Halako norbait bilatzeko, mesedez. Erreguak eta otoitzak egiten nizkien etengabe Isisi Venusi, Minervari eta jainkosa guztiei (*luma askorekin*), eta Oiassoko gizon boteretsu batekin ezkonduko naiz. Aita konbentzitu nuen esanez burdinazko lingoteen garraioko negozioetarako gizon honekin ezkontzea ona izango zela. Izan ere, nire aita arduratzen da Irugurutzetatik ateratzen den burdina lingote bihurtzeaz eta Oiassoko portutik mundura eramateaz. Eta lehen aldiz bere bizitzan, arretaz begiratu zidan. Ez dizuet kontatu, baina Augustok ia ia aitaren negozio guztia pikutara bidali zuen. Aitak akabatu nahi du, kar, kar. Baina hori beste istorio bat da.

Kontua da nire senarra izango dena, gizon kultua eta osssooooo lanpetua dabil beti. Hain lanpetuta... bada, ni “pozik” egoteko zerbait oparitu nahi didala... bere gizontasunari buruz gezur txikiren bat botatzeko. Eta badakizue nik zer eskatu diodan??? Liburuak kopiatzeko eskola bat eraikitzea. Zer iruditzen zaizue? Idia mundiala, ezta? Baina horretarako zuen laguntza beharko dut, zeren ez al duzue uste momentu aproposa dela Oiasso leku berezia izatea lortzeko. Meatzari, artisau, zapatari, eltzegile, arrantzale, aduanazain eta abarrez gain, ilustraziorako, kulturarako, literaturarako eta antzerkirako lekua egongo den hiria!!!

Eta berri on hau zuekin partekatu nahi nuen, zuek zarete ulertuko nauzuen bakarrak, baina mesedez... txitik ere ez!

Ai, kopiatzaile eskola izan bezain laster, auditorio bat eraikitzeko eskatuko diot. Ez dakit zein izango litzatekeen kokapenik onena, baina egingo dugu! Horixe egingo dugula! Zuen laguntzarekin...! Ai, zein garrantzitsua den eskola, ezta? Eta liburuak?!

(*Bularretik liburutxo bat atera eta musu bat ematen dio*).

Eskerrik asko, Minerva! Eta eskerrrik asko Livia, noski!

Txirula jotzen hasten da, aktorearen azken hitzekin batera doan melodia alaia. Aktorea eszenatik irteten da.

JULIA

Aizpea Goenaga

Hola, buenas tardes... y gracias por venir. Muchas gracias. Os agradezco mucho, y doy gracias a los dioses por ayudarme a reuniros. Bueno... sobre todo a Minerva. Ya se que estaréis preguntandoos que hacéis aquí, en vez de estar bebiendo vino y celebrando estas fiestas con los amigos... o viendo a los gladiadores o... disfrutando de la música, pero si os he convocado es por un asunto de gran relevancia. Todos nosotros hemos compartido el mismo *litterator*, el mismo maestro. Hemos aprendido a leer, y amamos a los grandes autores gracias a él... bueno y... por nuestras madres. La nuestra es una gran matrona, ilustrada y culta, que aprendió de su familia las artes de la escritura, la filosofía, la ciencia y la astronomía. pero además nuestra madre nos instruyó, bueno... me instruyó en la música. ¡Jamás podré cantar como lo hace mi madre! pero por Júpiter, que gran fortuna hemos tenido de tener la madre que hemos tenido. Bueno, que suerte he tenido... yo. Yo. Sí.

Porque gracias a ella aprendí a leer, me instruí en el cálculo, y gracias a su empeño seguí mi instrucción como todos vosotros con el *litterator*.

Pero mi madre ha tenido que luchar para que yo pudiera estudiar. Ya sabéis que no es fácil. Para muchos padres el estudio es una pérdida de tiempo. Y encima si eres mujer... ya ser mujer es inútil y estudiar... puah!. Solo sirve para tocar algo de música para animar las veladas cuando hay invitados en casa... (*suenan la flauta*) recitar un poema de amor ante los familiares que vienen de visita, para que se marchen muertos de envidia y... ¡nada más!

La vida es una batalla. Una batalla sangrienta. Cruel... Donde el que golpea más fuerte gana, y puede hacer lo que quiera con su presa. Y las mujeres somos presas. Que por haber nacido mujeres hemos perdido la primera batalla de nuestra vida. Y somos presas de nuestro padre primero y de nuestro marido después. Bueno... jaja

Se que los que habéis venido a mi llamada también sois hombres pero vamos a ver... hombres... mujeres... ninfas... minotauros... :

Vamos a ver, si a vosotros os dan a elegir... ¿qué preferís el ojo izquierdo o el ojo derecho? Decírmelo tranquilamente... ¿El derecho? ¿El izquierdo? Tampoco os importa demasiado, ¿verdad? Si os falta uno, os podríais arreglar con el otro, ¿verdad? Pero... ¡vamos a ver! si sois tuertos del ojo izquierdo, y os dan a elegir el ojo que daríais a los dioses si os pidieran uno... ¿cuál les otorgaríais?... Si de este no véis... les daríais este, ¿verdad? El izquierdo, claro. Y viviríais con el derecho

Y ¿qué mano ofreceríais a los dioses? la mano izquierda que ayuda pero no ejerce o la derecha que es con la que realmente lo hacemos casi todo? Vale... entonces ofreceríais el izquierdo.

Y si fuerais cojos de la pierna izquierda? También le daríais esa pierna a los dioses ¿verdad?

Pues yo soy la parte izquierda de mi padre. Ese ojo, esa mano y esa pierna que ofrendaría a los dioses sin tener un ápice de duda. Yo soy esos órganos del cuerpo que mi padre no dudaría en desprenderse si tuviese que hacerlo.

Pero es que incluso... si su ojo derecho, su mano derecha y su pierna derecha, aunque estuvieran lisiadas, pero si representasen a mi... les ofrecería a los dioses.

De la misma madre nacimos dos seres, mi hermano, Claudio y yo, el mismo día, a la vez!. Ambos compartimos meses juntos en la barriga de nuestra madre. Es lo único que hemos compartido, y por Júpiter, que fue porque no me podía escapar de allí. Al nacer nuestra abuela mostró orgullosa a nuestro padre los dos hijos. Dos hijos de golpe era demasiado para mi padre, y puedo imaginar lo que pensó: "*Pruf, una niña, ¿para qué quiero yo una niña?*" y según cuenta mi abuela, le dijo "*cómo vas a renunciar a la hombría de hacer niños a pares... serás la envidia de Oiasso*". Y mi padre que es muuuuy hombre torció el morro pero dijo... "*de acuerdo! que viva también la niña!*" Solamente por esa bravuconería estoy hoy aquí.

Qué fuerte, ¿verdad? Mi madre nos lleva nueve meses dentro, pare con dolor, y nuestro padre es el que decide... vale o no. No me apetece y... al río o para esclava...

Mi hermano Claudio... claro no le iban a poner un nombre más sencillo, es el ojo

tuerto, la mano manca y la pierna coja de mi padre, pero del que jamás renunciaría!

Es inútil, vago, y tonto, pero tonto tonto y además es pequeño y redondo. Pero a pesar de todo es “hombre”, y por tanto mi padre jamás prescindiría de él. Siempre lo defenderá. Le apoyará...

Los dos empezamos a estudiar con mi madre en casa. Y ni ha aprendido al *abecedarii*, ni el *syllabarii* ni tampoco el *nominarii*. Por no hablar de cálculos... y recitar? Pero por todas las diosas... qué manera de destrozar un texto. (*Imitando a su hermano que no sabe leer y tartamudea...*).

Engendradora del romano pueblo,
Placer de hombres y dioses, alma Venus:
Debajo de la bóveda del cielo,...

Es que muy agosto, muy agosto pero tiene todo lo minúsculo! Tartamudea, no puede decir la R, y encima no sabe ni lo que lee... ¡qué inútil! El maestro se enfadaba y entonces me pasaba a mi el poema para que lo leyera. ¡Qué rabia le daba eso! Por eso creo que me odia más todavía.

Cuando teníamos que empezar a ir a la palestra, mi padre... otra vez él, quiso casarme y que me olvidara de los estudios. ¡Qué zoquete! De tal palo tal astilla... (*al público*). Ya sabéis de qué os hablo, verdad? a que conocéis más de uno así? Garrulos! Pero bueno... tanto mi madre como mi instructor y el profesor de música, y hasta mi abuela le suplicaron que debía seguir mi instrucción y que podría ser bueno para la familia. Lo que costó convencerlo. ¡¡¡Pero sí, pude seguir estudiando!!!

A mí lo que más me gusta es la literatura...

...
Debajo de la bóveda del cielo
por donde giran los astros resbalando...

“Pero por qué no hablas normal? No se ni lo que dices” suele decir... ya sabéis quién! Vamos que si se entera que escribo poesía... uhaaa y la cara que pondrá cuando se entere que recitaré en las fiestas del Dies Oiassonis!!!

Hay personas como mi padre que jamás entenderán la belleza de las palabras... o de la música o del pensar por qué y para qué estamos aquí!

Si yo fuera un hombre... si la fortuna hubiese querido que yo fuese Augusto y

el tontolón, zoquete, borrico de mi hermano fuese Julia... yo hubiese podido escribir, estudiar, y quién sabe hasta quizás ser médico sanador. Pero por qué se equivocaron los dioses. ¡¿Por qué?!

Y encima el *Pater Familias* decidió casarme con un hombre mayor igual de zote, mentecato, bruto e ignorante... ¡qué desgracia la mía! ¡Cuántos ruegos hice a Isis para que lo apartara de mi camino! Una noche estaban cenando, y mientras tocaba el lute, le dice mi padre a Valerio —el viejo que iba a ser mi marido— “*a ver si la enderezas... que mucho libro y mucho poema... al final muchos pájaros en la cabeza*”, y el otro va y suelta... “*No te preocupes, con mujeres así lo mejor es mano dura. Y los libros para el fuego*” Jajajaaa se reían los dos. ¡Como si yo no estuviera! ¡¡¡Me dieron un asco!!! ¿Os imagináis? ¡Menuda vida me esperaba!

Cogí todos los libros y los llevé sin que mi padre se enterase a casa de Livia. Que es mi mejor amiga. y le cuento todo y lo desesperada que estaba y... Me mira, se me queda mirando y me dice... “*¡Toma! ¡Tu estudia!*” y me entrega un librito... ¡QUE ME HA SALVADO LA VIDA! Era un librito sobre... no sé cómo explicarlo... sobre... ¿medicina?

La cosa es que me casé con el viejo Valerio. Que no pudo quemar mis libros. Y yo me convertí en la leal y discreta matrona y esposa.

(*Imitando al borono de su marido*). “¿Has visto cómo he enderezado a tu hija?” jajajajaaa... “Augusto, mira, aprende de Valerio! Ay yerno, tu doblegarías hasta un león! Jajaja...”.

¿Un león? ¿Un león? ¡Un león se lo come de un bocado por bocazas!

Uy, qué digo... pobrecito mío. Fue casarnos y... (*haciendo como que llora*) de repente... una noche se quedó dormido y no se despertó. Y el bravucón de él como fardaba de lo viril que era, de cuántas veces me poseía, y... esas bravuconadas de los zoquetes... en el funeral... ¡¡¡lo que lloré!!! ¡Hasta a mi padre le vi preocupado por mi por primera vez en su vida! Bueno pues en el funeral se corrió la voz que era porque era demasiado mayor para TANTAAaa actividad sexual. jajaja...

Ahora ya ha terminado el luto, y... el *Pater Familias*, como me ve leer, se empeñó que tenía que volverme a casar. ¡Qué empeño! Le pedía a mi abuela que intercediera para que me casara con alguien culto y sabio. Volvía a hacer ruegos y plegarias, a Isis a Venus, a Minerva y a todas las diosas... (*con mucha pluma*) y me voy a casar con un poderoso hombre de Oiasso. Le convencí a mi padre diciéndole que así los negocios del transporte de los lingotes de hierro se verían beneficiados. Y por

primera vez en su vida, me miró con atención. Porque no os he contado pero... jajaja... Augusto casi arruinó a mi padre. Lo quiere matar, jajajaja

Y mi futuro marido que es un hombre culto... y muuuuuy ocupado, quiere regalarme algo para que esté contenta... y le he pedido crear una escuela para copiar libros. ¿Qué os parece? ¿A que es una estupenda idea? Pero, claro, para ello necesitaré vuestro apoyo, porque no creéis que es buen momento para que consigamos que Oiaso sea un lugar especial. Una ciudad donde además de mineros, artesanos, zapateros, alfareros, pescadores, aduaneros,... haya lugar para la ilustración y la cultura, para la literatura y el teatro... Ay, necesitaba compartirlo con vosotros que sé que me entendéis. ¡Pero por favor, de todo esto ni mu!

Ay, ya sé... en cuanto tengamos la escuela de copiadores, le pediré un auditorio. No sé cuál sería la mejor ubicación... ¡Pero lo haremos! Claro que lo haremos... ¡Cuento con vosotros! Qué importante es la escuela, ¿verdad? Ay, y los libros.

Saca un librito del pecho y le da un beso.

¡Gracias Minerva! ¡¡¡Y cómo no Livia!!!



ESKLABOA

Aizpea Goenaga

Seia esklaboa sartzan da, soinekoarekin haizatzen, zorabiatzen ari balitz bezala bezala ziriak egiten dituen bitartean.

A ze beroa!

Uf... hor barruan ezin da egon. Hain da bero hor barruan... ene, ia zorabiatzeko zorian egon naiz. Hildakoen sua dirudi. Bai, bai... ona izango da larruazalerako eta osasunerako, baina gorroto dut hona etortzea, eta ahal dudanean hanka egiten dut. Zuek bezala, ezta? Irakiten ari den eltze batean sartzea bezalaxe da... Ai, hona irteten naiz korrika ihesi eta freskatu egiten naiz, baina erne ibili behar dut etxeoandreak nire falta senti ez dezan. Eta berriz ere, ziztu bizian irakiten ari den eltzera!

